

# GURE IKASGELA



Doinua:  
*Orriak airez aire*  
Kopla txikia (7/6 silaba)

Gelara sartu eta  
piztu dut **argia**  
andereñok esan dit:  
Ze neska **argia**!

Beti nire ondoan  
esertzen da **Nahia**,  
bertsolari izatea  
da neskaren **nahia**.

Gure gelako Aitor  
ze mutil **garaia**!  
Beretzat ederrena  
da jolas **garaia**.

Ane laskerketetan  
da oso **azkarra**  
baina azterketetan  
ez da hain **azkarra**.

Julenek gogorregi  
du baloia **bota**  
eta atera zaio  
futboleko **bota**.

Ondoren aurkeztuko  
dizuet **Alaia**  
neska jatorra eta  
gainera **alaia**.

Xabierrek josteko  
hartu du **haria**  
eta gero hizketan  
galdu du **haria**.

Plastikako orduan  
Jonen zenbat **arte**!  
Marrazten jardun leike  
gaua heldu **arte**.



## Gure kopla

Bururatzen al zaigu beste hitz polisemikorik?  
Ea kopla egitea lortzen dugun, oina birritan erabilita, baina poto egin gabe!

---

---

---

---